

Prentsa oharra: 2023-10-09

Orain dela urtebeteko urrian, Elosun elkartu ginen, mendiak babestu nahi ditugula eta mendietan zentral eolikorik nahi ez dugula aldarrikatzeko.

*Energia berriztagarria bai, mendiak txikitu ez lelopean bat egin genuen honako taldeek: Oletan ere ez (Azkoitia), Sañu bizirik (Azpeitia), Sainu Bizirik (Zestoa), Karakate Bizirik (Elgoibar, Soraluze, Bergara), Urretxu-Zumarraga Bizi! (Urretxu-Zumarraga), Andatza-Ezkeltzu Bizirik (Zizrukil) eta Andatza-Ezkeltzu Bizirik (Ursurbil). Eta elkarrekin bidea abiatu genuen, **Gipuzkoako Mendiak Aske** izenpean.*

Urtebeteko ibilbidearen ondoren, **Zizurkilen** elkartuko gara, ospakizuna eta aldarrikapena bateratu nahian, **urriaren 22an**.

Ospatuko dugu Gipuzkoako mendiak babesteko sarea sortu eta sendotu egin dugula urtebete honetan eta aldarrikatuko dugu mendiak aske nahi ditugula, industrializatu barik, gure gazteen eta seme-alaben etorkizuna izaten segi dezaten.

Horretarako, **honako egitaraua** antolatu dugu:

Energiaz hausnartzeko

12:00etan, *Energia (k) ezbaian* izenburuko BERTSO SAIOA, herritarrei energiaren inguruko gaiei buruz iritzi ezberdinak jasotzeko aukera eskainiz; bertso saioa San Millan elizan izango da, punta-puntako bertsolarien partaidetzarekin:

Aitor Bizkarra

Andoni Egaña

Maialen Lujanbio

Oihana Iguaran.

Gai-jartzailea: Saroi Jauregi.

Sarrera 10 euro; umeek borondatea. Aldez aurretik zein egunean bertan eros daitezke.

14:00etan, HERRI BAZKARIA kantaldi eta guzti, eta, amaieran

kalejira. Herri bazkariko produktu guztiak bertakoak eta ekologikoak izango dira.

Bazkaria: 15 euro; umeeek borondatea

Bertso-saiorako zein bazkarirako **txartelak** honako lekuetan eros daitezke (**bazkarirakoak urriaren 15a baino lehen**): ANTZUOLA (Aitz Garbi), AZKOITIA (Etxe-Aitz eta Atraskua), AZPEITIA (Urtzi), LAZKAO (Biziola), ELGOIBAR (Jai Alai eta Lanbroa), ITZIAR (Burugorri), SORALUZE (Arrano eta Pil Pilean), ZESTOA (Uztapide), ZIZURKIL (Plaza Etxeberri, Iriarte eta Egarrri)

Nahi izanez gero gma@ni.eus korreoa eskatu daitezke sarrerak beti ere urriaren 15^a baino lehen.

Ekimenaren inguruko galderak erantzuteko: Ainhoa Gil (679387345)